

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan, baliabide ezberdinak erabiliko ditugu.

- Alde batetik, **ordenagailuen sare ona** edukiko dugu, 600 mb-ko Internet sarea, zuntzaren bidez ibiliko dena, gure aplikazioan laguntza eskaintzeko eta guk konpondu ditugun arazoak konpondu ahal izateko. Beste alde batetik, segurtasun-sistema bat edukiko dugu, gure aplikazioan edozein pertsona ez sartzeko. .
- Baliabide horiez gain, **lokal bat** edukiko dugu, Internet sare egoki batekin bertatik lan egiteko. Lokal horretan altzariak egongo dira (mahaiak, aulkiak...) eta langileok (Uxue, Maddi eta Eneko) lan egiteko leku bat egongo da. Gainera bideoak grabatzeko eta Streaming-ak egiteko espazioa ere izango dugu, bakoitzak behar duen material egokiekkin. 80m2 edukiko dituen lokal bat, komuna barne eta lan egiteko erabiliko ditugun altzariez beteko dugu.
- Giza baliabideen artean, **Uxue finantza arloetan** arituko da, ekonomiako ikasketak egin ondoren finantzan espezializatu zelako, **Maddi bezeroekiko harremanetan eta publizitatean**, marketineko ikasketak egin dituelako eta **Eneko** aplikazioak izan ditzakeen **arazoak konpontzeko**, ingeniarietza informatikoko ikasketak dituelako.
- Azkenik **finantza baliabideak ere beharko** ditugu, hainbat iturrien bidez lortuko duguna. Ez da oso proiektu garestia eta ez da inbertsio handirik egin behar. Handitzen goazen heinean, gure finantza baliabideak handiagoak izango dira eta aurrezkiekin egingo dugu hasierako inbertsioa.